

B

BARREN

TOKIKOM

Urtebeteko bidaiak autokarabanan

Larrañaga-Escobal familia





Heziketa Ziklo Industrialak
(Goi eta Erdi Maila)



Txandakako Ingeniaritza

Ate irekiak
2010 urtea

MAIATZAREN 29an
Goizeko 11:00etan
Heziketa Zikloak
eta Txandakako Ingeniaritza

IMH - Azkue auzoa, 1 - 20870 Elgoibar - Tfnoa. 943 74 41 32 imh@imh.es - www.imh.es

Uztailleko ikastaro trinkoak

ALEMANA, FRANTSESA ETA INGELESA

ILS
Industry Language Services

inglés

francés

alemán

italiano

chino

Ordutegia goizez
eta arratsaldez

Informazioa, matrikula eta ordutegiak:

www.ils.es

943 744 040

Ikastaroaren ordu
kopurua: 50

Ekainaren 28tik
Uztailaren 30era

Maila guztiak

Orakorra eta
komertziala

Talde murriztuak



Azkue Auzoa 1 (IMH)
20870 ELGOIBAR

Zatoz gurekin, gazte!

Nere txanda ei da, baiña zure billa nator gaurkuan :

Bai, zu, gaztia zeran hori. Jakingo dozu honezkero zer dan HARRO2, ez? Motzian azalduko dizut bestela: Elgoibarko gazte mugimendua bateratzeko taldea gera; gazte eta gazte-eragillien topagune izan nahi dogu.

Dauaneko alkartu gera zenbait lagun, izaera askotarikuak baiña danok mugarri horretaranzko bidian. Kolore diferentetako harrixak batu eta alkarrekin horma alai bat osatuko dogu, bizixa, eta danontzako lekua eukiko dabana; harriz harri, herrixaz harro egoteko moduko murrua altzau, behinguagaittik banantzeko baiño biltzeko balixoko dabana. Eta zure ametsek, zure burruka eta buruko miñek ere badauke tokixa gure artian. Demaseko harrikadia badakazu, harrixa baino buru gogorraua edo idea harrigarrixak... Animau parte hartzera, danon artian seguru zeozer lortuko dogula!

Utzizu ba BARRENA, eta hurbildu zaitte berandutu aurretik. Gaur, barixakua, ipiñiko dogu egitasmo honen lehenengo harrixa. Atsaldeko 19:00etan izango da aurkezpena plazan, eta bukatu ostian txaranga-poteuakin hartuko dogu Madalarako martxia. Han afari ederra eukiko dozue zain 21:30ak bueltan. Ta behin tripia bete eta eztarrixak bustitta, kantuan jartzeko bidia eginda dago! Ordu txikixak arte karaokia martxan egongo da, eta hortaz, animau kantatzera, dantzatzera edo nahi dozunera. Baiña ez geratu etxian, ipiñi zeure harrixua!

Mikel Olaizola

“Demaseko harrikadia badakazu, harrixa baiño buru gogorraua edo idea harrigarrixak... Animau!”



“Nire txanda” atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitetz gurekin harremanetari: 943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

**BETE DUZU ALBISTEAK
E-POSTAZ
JASOTZEKO HARPIDETZA?**

**EGUNERO
BIZPAHIRU
ALBISTE JASOKO
DITUZU!**

www.elgoiBARREN.net

Albisteak ePostaz jasotzeko

Izena _____

ePosta _____

Harpidetu

Harpidetza eten

Harpidetzu!

**Egin
klik
eta
ikusiko
duzu**

JOXEAN IÑURRIETA

UDALTZAIN OHIA

“Elgoibartarrek
edozein
gauzatarako
deitzen dute
Udaltzaingora”

1983ko abenduan hasi zen Joxean Iñurrieta plaentxiarra udaltzain Elgoibarren, eta 26 urteren ostean, aurtengo otsailean laga du lanpostua, osasun arazoengatik. Udaltzainen lanbidea “zaila” dela adierazi du, eta askotan, psikoanalista papera ere betetzen dutela aitortu du. Kanpotik ikusten den bezalakoa ote da udaltzainen lanbidea? “Kalean pasiatzea eta isunak jartzea baino askoz gehiago” dela azaldu du Joxean Iñurrietak.

Udaltzain lana laga duzunetik, nolakoa da zure bizimodua?

Osasun arazoengatik laga dut lana. Orain dela 22 urte izandako auto istripu batean lepuztaia hautsi nuen, eta denbora pasa ahala, okerrera egin du gaitzak. Gizarte Segurantzak ezintasun iraunkorra onartu dit. Orain lasaiago nago, eta hainbat sendabide

probatu ondoren, kiropaktika tratamendua egiten ari naiz, bizkarreko minak gainditzeko. Horrez gain, hizkuntzak ikasten ere badihardut, eta Baketik egitasmoaren Arantzazuko ikastaroetan ere parte hartzen dut.

Nolakoa da Elgoibar udaltzain baten ikuspuntutik?

Asko aldatu da lanean hasi nintzenetik, bai-

na herri berezia da. Elgoibartarrek edozein gauzatarako deitzen dute Udaltzaingora. Behin aire libreko zinean eman behar zuten pelikularen kalifikazio moralaz galdetu zidaten.

Nolako harremana izan duzu herritarrekin?

Denetarik izan da, baina gehiengoarekin, ona. Nire jokaeraren ondorioz minduta



sentitu direnei barkamena eskatu nahi diet lerro hauen bitartez.

**“Gure kontrako
kexak asko izan arren,
arazoak dituztenean
Udaltzaingora jotzen
dute herritarrek”**

Izan duzu haserterik norbaitekin?

Edozein lanetan bezala, arazoak sortzen dira, baina denborarekin aurre egiten ikasten da. Mehatxuak eta irainak ere jaso izan ditut, eta epailearen aurrean salatu ditut guztiak. Hala ere, ez diot inoiz inori ezer gorde. Badirudi epaiak eraginkorrak izan zirela, salatuetakoa inork ez zuelako inoiz gauza bera errepikatu.

Dena dela, kalean baino gehiago sufritu izan dut udaletxeko pertsonalaren kudeaketaren ondorioz. Aurreko legealdietatik datozen jokaera baztertzailak eta arazoak bizi dituzte udaletxeko langileek: legez kanpo ekarritako pertsonal arduraduna, espioitza udaletxean, sindikatuetako ordezkari sarituak, oinarrizko baldintzak betetzen ez zituztenen kontratazioak, seinalatuen aurkako zigor espediente kapritxosoak, eskubideen urraketak... Gorriak ikusi ditugu “okerreko sindikatukook”, eta bakoitzak bere erantzukizuna du. Oposizioa zinegotziek ere ez dute arlo honetan esku hartu, eta, goikoenganako beldurraren ondorioz, pasibotasuna beste konplizitate mota bat izan da.

Iragana ezin dugunez aldatu, baina, mobbing edo lan arloan erasoak sahiesteko protokolo eraginkorra ezarri beharra dago lehenbailehen. Oposizioak kontratazio prozesuak eta pertsonalaren kudeaketa fiskaletan behar ditu. Ordezkarik ez diren, berriz, langile guztien eskubideak defenda

dituzten eskatzen diet, ez soilik beraien sindikatukoak. Pertsonalaren kudeaketan gardentasunez jokatzeko lan giroa sendatuko luke, eta elgoibartarrek zerbitzu hobea jasoko lukete. Estatistikak diote %15 ingururako delat mobbing-a jasaten duten langileen kopurua, eta administrazioan are handiagoa da kopuru hori. Elgoibar ez da salbuespen bat. Orain, kanpoan nagoela, auzartzen naiz urteetan isildu ditudan injustiziak ozenago salatzen, bertan dihardutenentzat lagungarri izan daitekeelakoan. Barreri eskertu nahi diot ematen didan aukerara hau.

Zuen lanbideak kritika asko jasotzen ditu.

Nola bizi dituzue kritika horiek?

Norbaitek hartu behar du paper hori. Gizarte garatuago batean, beharbada, autoritatearen beharrik ez litzateke egongo. Lanpostu honek eskaintzen duen egonkortasuna pribilegiotzat jotzen dute batzuek, eta neuk ere horrela ikusi izan dut batzuetan. Egunerokotasunean, baina, lanbidearen alde guztiak ikusten dira. Dena den, gure kontrako kexak asko badira ere, herritarrek arazoak dituztenean Udaltzaingora jotzen dute. Konfidantza dute-lakoan nago. Jende askok beraien gabeziak edo Administrazioarekiko kexa edo haserrea askatzeko erabiltzen du udaltzainaren figura, beste batzuek kiroletako epaileekin egiten duten bezala. Nik ikasi egin behar izan dut laneko arazoak ez pertsonalizatzen. Gehienetan pertsonaren kontrako erasoak baino gehiago uniformen kontrakoak izaten dira, eta horrela hartuz gero, errazagoa da.

Azkenaldian atxiloketak eta istiluak asko ugaritu dira. Herri arriskutsua da Elgoibar?

1980ko hamarkadan, heroinaren menpe bizi ziren *yonki* batzuk droga erosi ahal izateko lapurretan egitera behartuta sentitzen ziren, etxeko ondasun guztiak xahutzen zituztenean. Gaur egun, baina, segurtasun handiagoa dago, nahiz eta, hori bai, istiluei oihartzun handiagoa ematen diozuen zuek, komunikabideek.

Nola bizi izan dituzu Elgoibarko zapatuak?

Kezka handiarekin eta pare bat aldiz, beldurrez ere bai. Adibidez, zerbitzuan bi udaltzain baino ez geunden egun batean, bere onetik irtenda eta borrokarako gogoz zebilen hamar laguneko koadrila bati

egin behar izan genion aurre. Halakotan ez da inguruko laguntzarik jasotzen.

Zer ikusi duzu Elgoibarko kaleetan?

Denetik, inguruetako herrietan bezalaxe. Alkohola da inongo zalantzarik gabe arlo guztietan kalterik handiena sortzen duena; beste substantzia toxiko guztiek batera sortzen dutena baino askoz kalte handiagoa.

Zein da udaltzain izatearen alderik onena? Eta txarrekoa?

Onena da mota guztietako jendearekin harremanak izaten direla, eta emozioak bere punturik gorenean daudenean hartzen dugun jarrerarekin, gauza berriak ikasteko aukera izaten dugula. Txarrekoa, berriz, norberaren izena galtzea da. Jende askok soilik udaltzain bezala ikusten zaitu.

Nola erabaki zenuen udaltzain izatea?

Egonkortasun ekonomiko bila sartu nintzen Administrazioan. Eibarren zerbitzari nintzela jakin nuen bi udaltzain postu betetzeko jendea behar zutela Elgoibarren, eta azterketak gainditzeko prestatu nintzen. Lehenengo geratu nintzen, eta Kabor postua lortu nuen.

**“Balio handia
ematen diot
ikasitakoari,
ez dago horrelako
unibertsitaterik”**

Egoera horretan bazina berriz ere, aukeratu al zenuke udaltzain izatea?

Ez dakit etorkizunak nora bultzatuko nauen, baina nahikoa izan dut 26 urteko esperientzia etekin pertsonala ateratzen saiatzeko. Balio handia ematen diot ikasitakoari, benetan. Ez dago horrelako unibertsitaterik.



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Eskerrik asko

Morkaikoko zuzendaritzatik eskerrak eman nahi dizkiegu mendi itzulia antolatzeko lagundu diguten guztiei: Gure Bide, Karakate eta Kalamua elkarteak, Netto, Beristain Edari Banaketak, Eroski, Bollar eta Frupi frutadendak, Zahatzu, Patxi, Iraola, Armueta, Ziarda eta Landa harategiak, Julio Bueno, Dori urdaitegia, ibilbidean zehar dauden baserriak, Udal Kirol Patronatua, Elgoibarko Udala eta Debemen. Nola ez, urtero gurekin izaten ditugun Jaime Martinez, Valentin Txurruka, Jabier Etxeberria, Sabin Txurruka eta Jose Agustin Olasolo. Aurten esker bereziak eman nahi dizkiogu Roberto Garcia Txeto-ri markaketa lanetan eskaini digun laguntza ezin hobea.

Morkaiko ➔

Herriko antzokia bertsoan blai

Aurreko asteartean Elgoibarko ikasleek bertso jaialdia izan zen Herriko Antzokian. Jendez gainezka egon zen aretoa, eta bertaratutako guztiak (lagunak, gurasoak, senideak...) sartu ahal izateko, ikasle talde bi kanpoan geratu behar izan ziren eurek prestatutako bertsoen txanda noiz iritsiko zain. Udalaren Euskara Batzordeak sentitzen du gertatutakoa, eta horren aurrean azalpen bat emateko beharra ikusi du.

Udalak Bertsozale elkartearen laguntzaz, eta ikastetxeekin lankidetzan, antolatzen duen egitasmo honen 5. edizioa izan da aurtengoa, eta orain arte ez da inolako arazorik izan ikasturte bukatuak jaialdiarekin. Udalak, hasiera ba-

tean, bi bertso jaialdi aurreikusi zituen: lehenengoa, maiatzaren 18an, eta bigarrena, 20an; baina azken orduko aldaketan ondorioz, saio bakarra nahikoa izango zela jakinarazi zitzaion Udalari. Aurtengo Bertso Jaialdiak izandako harreka ezin hobea izan da, eta aretoa txiki geratu da, beraz, argi geratu da hurrengo urteetan bi saio antolatu beharko direla.

Bide batez, ez dugu eskutitz hau bukatu nahi Bertsozaintza egitasmoan parte hartu duten ikasleek eta irakasleek egindako lana txalotu gabe. Pozgarria da, benetan, 200 ikasle oholza gainean bertsoan ikustea. Bertso saio bikaina eskaintzeaz gain, ondo baino hobeto erakutsi zuten ikasturtean zehar egindako lana.

Elgoibarko Udalaren Euskara Batzordea ➔

Anbulategiko larrialdi zerbitzuak

Osakidetzak Elgoibarko ambulategiko Larrialdi Zerbitzua kentzeko erabakia hartu duela eta, Elgoibarko Eusko Alkartasunak erabaki honen aurkako sinadura bilketa egitea pentsatu du.

Horrela, sinadura bilketarako orriak herriko puntu ezberdinetan egongo dira (denda, ambulategia, ...) nahi duen guztiak bertan sina dezan.

Jasotako sinadura guzti hauek Osakidetzara bidaliko ditugu.

Erabaki honek Elgoibarko herriari ekarriko dion kaltea handia dela iruditzen zaigu. Horregatik, ahalik eta indar handienarekin aurka egin ahal izateko,

herritar guztiak sinatzera animatu nahi ditugu.

Elgoibarko Eusko Alkartasuna ➔

Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:





Zuhaitz
Gurrutxaga

K a i x o
Unai! Has-
t e k o ,
dauzka-
gun ira-
kurle as-
ko edo gutxi
horiei behingoz
sekretu bat kontu-
tu beharko genieke.

Hilabete eta erdian behin
tokatzen zaigu BARRENEKO gure
txoko honetan jardutea. Nola da posible

zein gairi buruz aritu ez dakigula beti azkenengo egunean korrika
eta presaka idaztea? Gu bezain alferrak edo despistatuak izango al dira
astero idazten duten beste zozo eta beleak? Gustatuko litzaidake duda ho-
ri argituko balidake ipurbeltzen batek.



Unai
Arrieta

Bai, Zuhaitz, hala da. Beti bezala azken
unean presaka eta muturka lerro hauek idatzi
nahian. Ikasiko ote dugu egunen batean azken
orduko estuasunaren beharrik gabe gauzak den-
boraz egiten? Egiari zor, ez daukat esperantza han-
diegirik. Nago, askotan azken orduko larritasun horren
beharra izaten dugula gure asmoak gauzatzeko.

“Gu bezain alferrak edo despistatuak izango dira astero idazten duten beste zozo-beleak?”

Alferkeriaz ari naizenez, honako gaiaz hitz egin nahi dizut. Txorkatilan
lesio larri xamarra izan dut orain egun batzuk. Pare bat astez ahal den gu-
txien mugitu behar izan dut. Berandura arte lo egin dut goizetan, eta sofan
eserita pasatu ditut eguneko ordu gehienak. Irakurri, Interneten ibili, telebis-
ta ikusi...ez dut golperik ere jo denbora honetan. Ziur norbaitek inbidia ere
izango didala. Neroni ere gustura egon naiz *potrojorran*, baina laugarren
egunerako, zer egin ez nekiela, gose gabe eta zeharo aspertuta, monoto-
niak hartu nauela sentitu dut.

Honek zera pentsarazi dit. Nahiko al nuke bizi guztian golperik jo gabe
bizi ahal izateko beste diru izatea? Jakin badakit, bai, bidaiatu, kirola egin,
parrandak egin eta beste edozer egin ahal izango nuela, baina horrekin ere
gogaituko nintzateke egunen batean. Uste dut bizimodua aurrera ateratze-
ko gutxieneko eginbehar bat izatea beharrezko dudala nik neuk. Iratzargai-
lua, 7:00etarako jarri behar ez izanda ere, piztu beharra izatea. Zuk, Unai,
nik baino hobeto kudeatuko zenuke euromiloiko sari handi horietako bat?

“Zeregin eta eginkizunak gure jardueraren akuilu eta iparrorraz ditugu”

Neuk ere, Zuhaitz, lesioei dagokienean ez dut urte batere gozoa
izan. Min hartuta esan behar izan diot agur aurtengo denboraldiari.
Aste luzeetan kantxetatik kanpo izan naiz zuntz-haustura baten on-
dorioz. Badaki kirolean aritzen denak zenbaitetan zeinen gogorra iza-
ten den min hartuta egote hori. Jakin badakigu ere, geure lanak be-
rarekin dakarren arriskuetako bat dela, aritzen denari gertatzen zaiz-
kio halakoak. Hala ere aitortu behar dizut, Zuhaitz, lesio honekin ba-
rrua nahastu samar izan dudala: hasierako sinistu nahi eza, geroko
sumindura eta frustrazioa, agian, nola osatuko naizenaren zalantza.
Beste batzuetako eskarmentuagatik garbi dut ordea, lesioaren onar-
penetik eta geure berrantolamendutik etorriko dela osabidea. Lehen
egunetako nagikeriek eta gogogabekeriek sendatze-plan batean
ezarritako errehabilitazio lanei egin diote leku, eta poliki-poliki ohiko
jarduerara itzultzen ari naiz.

Zeinen garrantzitsu zaizkigun planak, egitasmoak eta helburu-
halmugak ezartzea. Lesio baten sendatzean bizitzan bezala, zeregin
eta eginkizunak gure jardueraren akuilu eta iparrorraz ditugu. Neuk
ere ez dut uste eginbeharrik gabe bizitzen asmatuko nukeenik.



Elgoibarko Udala



Osasun Zentroan gauerditik aurrerako larrialdi zerbitzua kenduko dute ekainaren 5ean.

Zer iruditzen zaizu anbulategian gaueko larrialdi zerbitzua kentzea?



Isabel Zafra
53 urte, arrain saltzailea

Oso gaizki iruditzen zait. Azkenaldian ez dut asko erabili zerbitzu hori, baina beharrezkoa dela uste dut. Umea txikia zenean behar handiagoa izan nuen, eta ondo hartu ninduten anbulategian. Jende guztiak ez dauka autoa, eta Mendarora joateko beharrezkoa da.



Sabin Uriguen
47 urte, mekanikoa

Txarto iruditzen zait. Larrialdiren bat izanez gero, Mendaroko Ospitalera joan beharko dugu, eta autorik ez duenak zailtasunak izango ditu. Jende nagusi asko dago autorik gabe. Elgoibarko larrialdi zerbitzua beharrezkoa da, bestela, Mendarokoak gainezka egingo du.



Jose Gonzalez
63 urte, jubilatua

Oso gaizki! Gauzak hobera beharrean, okerrera doaz. Biloba txikia daukat, eta gu geu ere adinean aurrera goaz. Egunen batean Mendarokoa ere kentzea bururatuko zaie, eta Donostiara joateko esango digute. 11.000 biztanleko herriak 24 orduko larrialdi zerbitzua izan behar du.



Manuel Dominguez
55 urte, enpresaria

Ondo ez. Elgoibar bezalako herri batek gutxieneko larrialdi zerbitzu bat eduki behar duela iruditzen zait. Egia da Sigman bizi denari berdin kostatzen zaiola Mendarora joatea edo anbulategira etortzea, baina gero denok kexatzen gara Mendaron zain egon behar dugulako.

I. URTEURRENA

MARITXU OÑEDERRA URIA

2009ko maiatzaren 18an hil zen.

Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan, maiatzak 23, goizeko 10:00etan Altzolako San Juan Bautista elizan.

Joango zaretenoi eskerrak aldezturik.



ESKERTZA

MANUELA ARAKISTAIN IRIONDO

2010eko maiatzaren 17an hil zen, 84 urte zituela.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



**Madalako espaloian baldosak solte daude:**

“Madala inguruko espaloian baldosak solte daude. Euria egiten duenean baldosa artetik ura irteten da, eta blai egiten gara. Orain dela hilabete inguru jardun zuten langileek obretan, baina ez dute arazoa konpondu. Eskertuko genuke lehenbailehen baldosak ondo lotzea”.



Elgoibarko tren geltokian langilea behar da: “11.000 biztanle ditu Elgoibarrek, eta ez dut ulertzen zergatik ez dagoen langilerik tren geltokian. Deban askoz jende gutxiago bizi da, eta txarteldegian langileak daude. XXI. mendean egon arren, makinek ezin dute beti gizakia ordezkatu, eta eragiketa guztiak ezin dira makinan egin. Jubilatuen txartela berri behar izan dut, eta Debara joan behar izan naiz. Elgoibartarrok zerbitzu hobea merezi dugula uste dut”.

Anbulategiko gaueko larrialdi zerbitzua kendu egingo dute: “Ezin dut ulertu zergatik kendu behar duten Elgoibarko gaueko larrialdi zerbitzua. Mendaroko larrialdi zerbitzuetan gainezka daude. Bailara guztiko jendea joaten da, eta denbora luzez egon behar izaten dugu zain. Herriko ambulategira joateko ohitura hartu beharko luke jendeak”.

**Herriko lorategi eta berdeguneak apaindu dituzte:**

“Azken egunotan herriko berdegune eta lorategiak apaindu dituzte, eta oso politak geratu direla iruditzen zait. Udaberriko loreak kolore bizikoak dira, eta poztasuna ematen du berdeguneak horren dotore ikusteak. Errotondetan ere landare berriak jarri dituzte, eta hori eskerrezkoa da”.

Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:
barren@elgoibarkoizarra.com / 943 744 112

**MEKANOSA**

Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

Jose Angel Zabala

MAHASTI

*Urdaitegia
eta
ardandegia*

Merkatu plaza, 30, 33, 34 • 615 76 03 72

Arnaldo Otegiren aldeko plataforma aurkeztu zuten zapatuan adin eta ideia askotako hainbat herritarrek

Otegi kaleratzeko eskatzeko eta Euskal Herrian politikari aukera bat emateko batu dira

Arnaldo Otegiren aldeko plataforma aurkeztu zuten zapatuan Elgoibarko Plaza Handian. Adin eta ideia askotako hainbat herritarrek norbanako gisa bultzatutako herri ekimena da, eta hiru helburu nagusirekin sortu dute: Otegi libre lagatzeko eskatzeko, haren senideei babesa eta hurbiltasuna adierazteko, eta gizartean bakearen aldeko jarrera bultzatzeko. Baltasar Garzon Espainiako Auzitegi Nazionalako epailearen aginduz atxilotu zuten Otegi, Donostian, LABen egoitzan, eta maiatza hasieratik Logroñoko kartzelan dago.

“Ez da samurra etxeko bat espetxean izatea; are gutxiago, inongo justifikaziorik gabe, itsukeriaren eta estrategia kalkulatuaren ondorio denean», dio Plataformako kideek irakurritako oharrak. Euskal Herrian gertatu diren aldaketa eta mugimenduei erreparatuta, Otegiren lana “premiazkoa” izan dela nabarmendu dute Arnaldo Askatu herri ekimenaren bultzatzaileek, eta etorkizunean eman beharreko pausoetan ere,



haren ekarpena “funtsezkoa” izango dela uste dute.

Era berean, herriko gainerako presonak ere gogoan izan zituzten plataformaren

aurkezpenean, eta Arnaldo Askatu herri ekimenak antolatuko dituen ekintzetan parte hartzera deitu zituzten herritarrek.

Ekainean abiatuko dute umeak eskolara oinez joateko programa



Oin alai programa aurkeztu zuten Elgoibarko Udaleko, Herri Eskolako eta Ikastolako hainbat ordezkariak joan zen egunean. 5 eta 10 urte bitarteko haurrak eskolara oinez joateko programa da *Oin alai*, eta ekainaren 7tik 18ra bitartean jarriko dute martxan, “proba pilotu gisa”. Orduetegiak eta ibilbideak zehaztu dituzte, ikasleak taldetan batu eta ikastetxeetara oinez joateko.

Zerbitzu berri honetan, baina, udaltzainen, gurasoen, aiton-amonen eta laguntzeko prest dauden gainerako herritarren laguntza ezinbestekoa izango da. Hori dela-eta, laguntzeko prest dauden herritarrei proiektuan izena emateko eskatu diete ekimenaren bultzatzaileek. Laguntzaileek ibilbide osoa edo zati txiki bat egingo dute umeen ondoan.

Izena **Pilar ikastetxea**



Joan zen barixakuan sinatu zuten Pilar ikastetxea Udalarri emateko akordioa. Gipuzkoako Gotzaitegiko arduradunak, Pilar ikastetxeko ordezkariak eta Elgoibarko alkatea izan ziren sinatze ekitaldian. Ikasturte honen bukaeran itxiko dute ikastetxea, eta ekainaren 12an izango da itxiera ekitaldia. Pilar ikastetxean Debabarrenerako zahar etxea eraikiko dute ondoren, eta 2014rako prest egotea aurreikusi dute arduradunek.

Berbia **Ekintzailetasuna**

Atzo izan zen Ekintzailearen Eguna, eta Debegesan eta herriko ikastetxeetan ekintzailetasunarekin lotutako ekitaldiak egin zituzten. Horren harira, hainbat datu argitaratu ditu Debegesak. 2009. urtean 42 enpresa sortzen lagundu zuen Debegesako enpresa proiektu berriak sustatzeko zerbitzuak, eta 53 lanpostu sortu ziren. Hemeretzi enpresa ireki zituzten Eibarren, zazpi Elgoibarren, bost Deban, lau Ermuan, hiru Mutrikun, bat Soraluzen eta beste bat Mendaron.

Irudia **Bartzelona Ligako txapeldun**

Domekan bukatu zen Espainiako Ligako denboraldia, eta beste behin, Bartzelonak jaso zuen garaikurra. Puntu bakarreko aldeaz iritsi ziren Real Madrid eta Bartzelona azken jardunaldira, baina aurretik ziren kataluniarrek. Talde merengeak liga irabazteko, Bartzelonak galdu ego berdindu egin behar zuen derrigor, baina Guardiolen taldeak ez zuen hutsik egin. Elgoibarren ere badira Bartzelona zaleak, eta aste honetan, bandera eta bufandak ikusi ditugu zintzilik zenbait leihotatik.



Eguenean ekarriko dute merkadilloa **Plaza Txikira**

Maiatzaren 27an ekarriko dute eguenetako merkadilloa Plaza Txikira, Udalak jakinarazitakoaren arabera. Lau urte pasatu dira merkadilloa Sigmara eraman zutenetik, baina Udaleko arduradunek berriro herri erdira ekartzeara erabaki dute orain.

Abiadura eta esperientzia falta, **Eibarko lau gazte hil ziren istripuko arrazoiak**

Ertzaintzak egindako ikerketaren arabera, gehiegizko abiadurak eta gidariaren esperientzia faltak eragin zuten Eibarko lau gazteak hil ziren istripua. Atestatuak dioenez, autoa (Golf bat) 103 kilometro orduko abiaduran zihoan, eta lau gazteek segurtasun uhala jarrita zeukaten. Gidariak aurreratze arriskutsua egin zuela argitu du Ertzaintzak, debekatura dagoen tokian aurreratu zuelako bere aurretik zihoan autoa. Kontrako norabidean zetorren furgoneta bat jo zuen autoak aurrez-aurre. Kolpearen ondorioz, lau gazteak hil egin ziren. Furgonetako bikotea eta haien alabak zauriak izan zituzten.

Zortzi gaztek egingo dute bihar **sendotza**

Elgoibarko zortzi gaztek egingo dute bihar, maiatzak 22, sendotza sakramentua. San Bartolome parrokiari izango da elizkizuna, eta elizbarrutiko gotzainak ere hartuko du parte mezan.

Eskailera mekanikoen mantenuak **71.106 euroko kostua izango du aurten**

71.106 euroko kostua izango du 2010ean eskailera mekanikoak mantentzeko lanak. Orona eta Thyssenkrupp enpresak arduratuko dira horretaz. Hilero emango diete olio eskailerei, eta matxurak saihesten saiatuko dira, beti ere ahal den neurrian. Hau da, mantenu lanak egingo dituzte, eskailerak hondatu ez daitezen.

Aitor Asenjo laugarren sailkatu da Aurreku eta Soinu Zahar txapelketako finalean, eta Ane Espilla, bosgarren

Haritz dantza taldean sartzea da Asenjo eta Espilla dantzari gazteen nahia

Amaitu da aurtengo Aurreku eta Soinu Zahar txapelketa. Joan zen asteburuan jokatu zuten finala Erreterian, eta dantzari elgoibartarrak pozik itzuli dira etxera.

Mutilen sailean Aitor Asenjo izan zen elgoibartar bakarra, eta laugarren postua eskuratu zuen. Pozik geratu da dantzari gaztea emaitza horrekin, baina txapelketako ligaxka irabazi ondoren, gehiago espero zuela aitortu du: "Finalean oso urduri nengoen, eta pauso batean konfunditu egin nintzen", esan du penaz. Hala ere, txapelketan oso maila ona egon dela adierazi du Asenjok, eta hamabost dantzariren artean laugarren geratzea pozik egoteko modukoa dela nabarmendu du.



Aitor Asenjo

Arg.: Eulogio Mancebo

Nesketan, Ane Espillak lortu du herriko dantzarien artean posturik onena, bosgarren postuan sailkatuta. Beste herrietan ere dantzari oso onak daudela adierazi du, eta nesken dantzak ikasteko zailagoak direla uste du. Hortaz, bosgarren postuarekin oso pozik geratu da.

Gainerako elgoibartarrek ondorengo postuak eskuratu dituzte: 7 eta 11 urte bitartekoetan Leire Morales 9. eta Saioa Marcos 14. postuan sailkatu dira. 11 eta 15 urte arteko sailean, berriz, Arantxa Ferreira (7), Andrea Arregi (8), Iraitz Gonzalez (10) eta Alaitz Egaña (13).

Helburua, Haritz dantza taldea

13 urte dituzte bi dantzariok. Umeumetan hasi ziren dantzan, eta orain dela lau urte hasi ziren Aurreku eta Soinu Zahar txapelketan parte hartzen. Gogor entsaiatzen dute, txapelketak irauten duen bitartean, bereziki. Jon Lizarralde dute irakasle, eta "gogorra" den arren, oso ondo erakusten duela esan dute bi dantzariok: "Oso ondo konpontzen gara berarekin. Kanporaketa guztiak ikustera joaten da, eta izugarri animatzen gaitu. Jendeari ez begiratzeko eta puntu jakin batean zentratzeko esaten digu". Urduritasuna baretzen laguntzen die horrek.

Hasierako urteetan urduriago jartzen ziren, baina denborarekin lasaiago egoten dira. Txistulariak "onak" izatea ere oso garrantzitsua da. Elgoibarkoek piezak "oso ondo" jotzen dituztela esan dute, baina beste herri batzuetan dantza erdian geratu beharra ere tokatu zaie, txistularien erruagatik.

Irakasleen eta ikasleen lanari esker, Elgoibarko dantzariak puntan dabilta azken urteotan, eta beste herrietan ere aintzat hartzen dituzte: "Badakite Elgoibartik dantzari onak joango direla". Dena den, epaimahaiak herri bakoitzean bertako dantzariak saritzen hasi direla uste dute: "Elgoibarren ere biok irabazi



Ane Espilla

genuen. Uste dugu umeek dantzan jarraitzeko egiten dutela hori".

Dantza egitea, kirola egiteko beste modu bat dela uste dute. Eskubaloian ere jokutzen dute, eta asteburu batzuetan dantzaren eta eskubaloiairen artean aukeratu beharra izaten dute. Dantzaren alde egiten dute biek, "eskubaloia astebururo izaten dugulako, eta dantza noizean behin bakarrik".

Ane Espilla eta Aitor Asenjoren ilusioa Haritz dantza taldean sartzea da: "San Bartolome eguneko Soka Dantzan parte hartzea oso polita izango litzateke".

Orain atseden txiki bat hartuko dute, eta ikasturtea hastearekin batera ekingo diote datorren urteko txapelketa prestatzeari.

MENDAROTIK MUNDU ZABALERA

AUTOKARABANA HARTUTA

Aspaldiko ametsa zuten, eta bete dute. Lanean eszedentzia hartu, eguneroko errutinan urtebeteko etena egin, eta munduan barrena dabilta Juan Agustin Larrañaga, Mari Jose Escobal eta Jara eta Ruth haien alabak, herrialde eta kultura berriak ezagutuz. Uztailaren 1ean irten ziren Mendarotik, autokarabanan, eta batetik bestera dabilta, nomadak bailiran. Bidean geldialdi bat egin, eta Greziatik erantzun diote BARRENEK egindako galderari, Internetez. <http://motzailak.blogspot.es> da haien bloga.

Ainara Argoitia



Zerk bultzatu zintuzten dena atzean laga eta era horretako bidaia handi bat egitera? Aspaldiko amets bat genuen. Lanean hasi eta gutxira esan genien lankide batzuei ikaragarri gustatuko litzaigukela urte sabatiko bat hartzea, munduan zehar bidaiatzeko. Belaontzi batean itsasoratu eta munduari buelta ematea itzela iruditzen zitzaigun orduan. Gero, bizitzak beste bide bat hartzen du, eta iristen da egun bat aspaldiko ametsa betetzeko aukera ikusten duzula. Lanean urtebeteko eszedentzia hartzeko aukera geneukan, eta iruditu zitzaigun gure alabentzako ere errutinan urtebeteko etena egitea ez zela aparteko arazo bat izango, zuten adinarekin. Gainera, gaur egun, laneko kontuek oso denbora gutxi lagatzen digute gure seme-alabekin egoteko, eta iruditu zitzaigun ezin geniola aukera honi uko egin.

Noiz irten zineten Mendarotik? Noiz zarete itzultzeakoak?

lazko uztailaren 1ean irten ginen, eta egun horren bueltan itzuliko gara. Geroago ezin da izan, egun horretan hasten garelako lanean.

“Loturarik gabe eta gure alabekin batera bidaiatzeko aukera eman digu autokarabanak”

Aurrez egina zenuten beste bidaia luzeren bat? Zer beste esperientzia izan dituzue? Hilabeteko oporraldira mugatu izan dira gure orain arteko bidaiak. Hegazkin txartela atera eta atentzioa deitzen ziguten urrutiko herrialdeak bisitatzera dedikatzen ginen: Guatemala, Venezuela, Peru, Mexiko, India, Maroko, Tanzania... Guraso egin eta lehenengo urteetan, oso gutxi irten ginen kanpora. Pausuan-pausuan inprobisatzen ibiltze hori ez zen bi alabarekin bidaiatzeko modurik aproposena. Autokarabanen munduan ezagutu genuen gero, baina, eta horrek loturarik gabe eta

gure alabekin batera bidaiatzeko aukera eskaini zigun.

Bi alabak hartuta joan zarete. Bilkotekidearekin bakarrik joatea baino zailagoa ematen du halako bidaia bat familian egiteak. Lana eta alaben ikasketak urtebetez eteteak ez zizuen beldurrik eman? Eta behin erabakia hartuta, zailtasunik topatu zenuten?

Bankuen alorrean zenbateko presioarekin lan egiten den ikusita, beldurra baino gehiago lasaitua ematen du urtebetez deskonektatu eta indar berrituta bueltatzeko aukera izateak. Gure alabak, berriz, Lehen Hezkuntzako lehenengo eta hirugarren mailan daude, eta iruditzen zitzaigun, urtebetez, eta salbuespen gisa, gai izango ginela ikas materiala geuk irakasteko. Erabakia hartu genuenean, ez genuen aparteko arazorik izan, gure lan hitzarmenean jasota dagoelako eszedentzia hartzeko aukera, eta ikastolan ez zigutelako inongo trabarik jarri. Areago, aurrera egitera animatuko gintuzten. Irakasleekin kontaktuan gaude, eta gure alabek skype bidez hitz egiten dute euren gelakideekin

Zuen alabak gaztetxoak dira artean. Nola bizi dute haiek esperientzia hau?

Irten aurretik, gure asmoen berri eman genienean, ezezko borobila jaso genuen haiengandik. Zaila egiten zitzairen euren munduari uko egitea: ikastola, balleta, musika eskola... baina, denborarekin, jabetu ziren bidaia horrek eskaintzen zienaz, eta arazorik gabe onartu zuten. Bageneramatzan hiru urte autokarabanan irteten. Britainiara, Kroaziara eta Alemaniara autokarabanan joan ginen, eta oso esperientzia polita izan zen haientzat. Garbi dago euren lagunaren falta igartzen dutela, baina naturaltasun osoz bizi dute esperientzia hau. Hamalau hilabeteko aldea besterik ez dute, eta ez dira aspertzen elkarrekin jolasten.

Noiz hasi zineten bidaia hau prestatzen? Zer zenuten buruan Mendarotik irten zinetean? Zeren bila abiatu zineten?

Urte hasieran, irten baino sei hilabete aurretik, Interneten informazio bila hasi ginen, beste jende baten esperientziak jasotzen. Bisitatu nahi genituen herrialdeetara autokarabanan egindako bidaien berri jaso genuen,



Grezia

eta gure ordenagailu portatilerara deskargatu genuen informazio hori guztia, bidaian zehar eskura izateko. Herrialde batzuetako turismo bulegoetatik ere bidali zizkiguten mapak eta liburuxkak, eta hainbat gida ere erosi genituen. Mendarotik ilusio handiarekin irten ginen, beste kultura, ohitura eta bizitzeko modu batzuk ezagutzeko gogoz.

“Apaltasunez eta errespetuz gerturatzin jakin behar da lekuan lekuko jendearengana”

Zeren arabera aukeratzen duzue zer ikusi eta nora joan?

Irakurtzen dugunaren arabera, kultura eta ingurumen ikuspuntutik interesgarriena zer izan daitekeen erabakitzen dugu. Jakina, hori atsedean uneekin eta gure alaben jolas tartekin tartekatzen dugu. Denbora luze eman dugu haurrentzako parkeetan.

Zelan antolatzen duzue eguna?

Ez gara aurrez gauzak antolatu zalea. 9:00ak aldera jaikitzen gara, eta ilundu arte egokiena iruditzen zaiguna egiten dugu, inprobisatuz. Autokarabana aparkatu, eta kalean pasatzen dugu egun osoa.

Hemengo egunerokora lotuta gaudenontzako ekonomia izan ohi da askotan bidaia bat hasi aurreko kezka nagusia. Nola aurreikusitako gastuak, aurrekontua nola egin... Zuek nola prestatu zenuten bidaia?

Autokarabanan aurrez egindako bidaietako esperientzia oso baliagarria izan zaigu. Kroazian hilabete egin genuen, eta beste horrenbeste Alemanian, eta gutxi gorabehera, berdina gastatu genuen. Bidaia honetan %30 gutxiago gastatzea aurreikusitako gertatu genuen. Horre

tarako, jakina, bidaiak hobeto antolatu behar genituen, eta kilometro gutxiago egin. Era berean, karabanan kanpo otordu gutxiago egitea eta oporraldietako kapritxo batzuk saihestea ezinbestekoa zela ere jabetu ginen. Nahikoa ondo bete dugu aurrekontua, baina berrialde batetik bestera alde handia igarri dugu prezioetan. Gure usteak bete dira, eta Norvegia izan da topatu dugun herrialderik garestiena.

Zuen antzeko esperientzia bizi izan zutenen bat ezagutzen zenuten aurretik? Eta gerora? Ezagutu duzue zuen antzera dabilen besterik?

Gure lankide batek antzeko bidaia bat egin zuen familia osoarekin belaontzi batean, Karibean zehar. Liluratuta itzuli ziren, eta gu ere xaxatu gintuen. Internetez ere izan genuen beste batzuen esperientzien berri. Bidaian zehar, jende asko ezagutu dugu, baina gure antzera dabiltzanak, bakarrak: Danimarkako familia bat. Budapestean ezagutu genituen, eta Turkian berriro egin genuen topo haiekin. Urtebete eta 9 urte bitarteko lau alabarekin zihoazen autokarabanan.

Zer da halako bidai bat hasi aurretik kontuan hartu beharrekoa? Zer zailtasun topatu dituzue?

Batetik, gogoia izatea, eta bestetik, argi izatea oporrak ez direla. Denbora luzea bidaiatzen emateak gure alaben eskola prestakuntzaren gutxieneko batzuk betetzea eta 24 orduko bizikidetzak sor ditzakeen gora beheri aurre egitea eskatzen zuen. Zailtasunak, baina, beste edonork izan ditzakeen parekoak dira. Gure kasuan, baina, hizkuntzak ez menperatzea ere zailtasun bat gertatu da batzuetan, komunikazioa zailtzen duen heinean. Euren sorterriko hizkuntza bakarrik menperatzen duten jende askorekin egin dugu topo bidean.

Non hasi zenuten bidaia, eta non daukazu bukatzeko asmoa?

Eskandinavia aldera jo genuen lehenengo,



Petra, Jordania

uda ahalik eta iparralderen pasatzeko asmoz. Gero, Finlandia eta Europa ekialdeko herrialdeetara jo genuen [Turkia, Siria, eta Jordania], negua ahalik eta hegoalderen igarotzeko. Orain Grezian gaude, eta etxera itzuli aurretik, Italia bisitatzea gelditzen zaigu.

Asko izango dira, baina zein leku edo paraje ez duzue inoiz ahaztuko? Eta nora ez zineten berriro itzuliko?

Paisaiari dagokionean, Norvegia eta Jordania, zalantzarik gabe. Jendeari dagokionean, berriz, turkiarrak gustatu zaizkigu gehien. Harritu, berriz, Poloniak harritu gaitu gehien, eta onerako gainera. Hiri ikaragarri politak daude, eta dinamismo handiko herrialdea da. Herrialde guztiak dute zerbeit, hala ere, eta ez genuke bakar bat baztertuko.

Irten aurretik imajinatzen zenutena topatu duzue. Zerk harritu zaituzte gehien?

Ez zaigu bisitatu nahi ditugun herrialdeen inguruko argazkirik eta bideoirik ikustea gustatzen, eta beraz, ez gara alde zureko ideia batekin joaten. Topatzen dugunaren eta eguraldiaren arabera, denbora gutxiago edo gehiago igarotzen dugu leku batean. Arabiar herrialdeetan emakumearen papera zein den ezagutzea izan da gehien harritu gaituena. Gizonezko askok eurek baino gutxiago direla uste dute, eta euren menpekotzat hartzen dituzte.

Herrialde arrikutsutzat sailtzen dizkigutenak ere bisitatu dituzue. Inoiz pasa al duzue beldurrik?

la ezinezkoa da herrialde horietan beldurra pasatzea. Gu ohituta gaudena baino segurtasun handiagoa dago, eta ez dago apenas delinkuentziarik. Hala ere, bidaiariak jakin behar du apaltasunez eta errespetu handiz gerturatzeko lekuan lekuko jendearengana, eta errespetu bera erakusten haien ohiturekiko. Kurdistanen, adibidez, euskaldunak izateagatik, estimu handiagoz hartzen gintuztela sentitu genuen. Terrorismo islamikoari dagokionean, esan, ez dugula pentsatu ere egin halakoetan, ez zaigulako iruditzen halako eraso bat jasateko arriskua handiagoa denik herrialde horietan Mendebaldeko herrialdeetan baino.

Zer izan da aberasgarriena?

Beste kultura batzuk eta bizimodu batzuk ezagutu eta haietatik ikasteko aukera eduki izana. Espero dugu ezberdinak naturaltasunez eta aurreiritzirik gabe onartzeko balio izana gure alabei.



Mugarik gabe hona eta hara ibili ostean, ka-bituko zarete gero Mendaron berriz?

Ez gaitu larritzen horrek. Gizakia egunerokari oso lotuta dagoen animalia da, eta guk, azken batean, urtebete egingo du bakarrik bidaiatzen. Gehiago dira eguneroko errutinari lotuta egon garen urteak, eta beraz, asko ohituago gaude horretara.

“Espero dugu ezberdinak aurreiritzirik gabe onartzeko balio izatea gure alabei”

Anekdotak mordo bat gordeko dituzue. Hemen kontatzeko modukorik bai?

Blogean (<http://motzailak.blogspot.es>) bat baino gehiago kontatu ditugu, baina gogoan daukat Turkian gertatu zitzaigun bat. Unyen, itsaso ondoan aparkatu genuen gure auto-karabana, eta herri erdialdera gindoazela dentista baten kontsulta topatu genuen. Bi aste baziren enpaste bat jausi zitzaidalda, eta sartzeara erabaki genuen. Han inork ez zuen ingelesik hitz egiten, eta dentistaren anaia deitu zioten, gaztelania ikasten ari zela eta. Lan kontuengatik Zumarraga eza gutzen zuen hark, eta lagun handia egin genuen. Ahalik eta merkeen egiteko eskatu zion anaia, eta bere emaztea ezagutzera eraman gintuen. Botikaria zen emaztea, eta goardian zegoen. Botikatik afalduta irten ginen. Ondoko taberna batera konektatutako interfono antzeko bat zuten, behar zuten guztia eskatzeko. Harrigarria egin zitzaigun, baina beste leku askotan ere ikusi

genuen. Beste behin, Vilnius (Litunia), liburutegi batera joan ginen, Interneten gure emaila kontsultatzeko asmoz. Sarreran tornu antzeko bat zegoen, eta karnet elektronikoa batek zabaltzen zuen. Guk karnetik ez genukanez, ezin genuela sartu esan zigun harrerakoak, nahiz eta guk argi azaldu genion ordubeterako baino ez zela izango. Bada, emakume hark karnet elektronikoa bana egin zigun, doan. Gaztelaniaz *mente cuadrada* esaten dena, horra! Ez zitzaion gure argazkiak txukun-txukun eskaneatu eta lan guzti hori hartzea baino irtenbide egokiagorik bururatu!

Ziur naiz jende asko inbidiatan izango duzuela. Zer esango zeniekete joan nahi eta zalantzan dauden horiei?

Gure esperientzia oso positiboa ari da izaten, eta buruan duten hori egiteko esango genieke. Ez dauka ezer txarrik. Arriskurik gabeko apustua da. Herrialde zibilizatu asko daude, eta esperientzia aberasgarri asko bizitzeko aukera ematen du bidaiatzeak. Oso zaila da benetan arrikutsuak diren lekuak topatzea. Hori bai, komeni da apaltasunez joatea, harrera ona egin diezaguten. Gainera, bidaiak gure gustukoa ez bada, beti dago itzultzeko aukera. Inoiz ez da beraz porrot bat izango. Egiteko desiatzen zauden hori ez egitea da porrota, eta ez bestea.



Elgoibarko mendi itzulia, euripean eta lokatz artean

Euriak eta hotzak ez zituen izutu zapatuan mendizaleak. 185 lagun zeuden izena emanda Morkaikok antolatutako mendi itzulian, baina batzuk ohean geratzea erabaki zuten, eta azkenean, 130 lagunek eman zioten buelta herriari, mendiz mendi. Elgoibarko mendizaleez gain, inguruko herrietatik ere etorri zen jendea, eta baita Madrildik ere. 38 kilometroko ibilbidean denetik gainditu behar izan zuten mendizaleek: euria, lokatza eta txingorra ere bai tarteka. Baldintza meteorologikoei aurre egiteko ezinbestekoa izan zuten Jaime Martinez, Sabin eta Valentin Txurruka eta Xabier Etxeberriaren laguntza. Izan ere, laukote horrek txorizo egosia, edariak eta salda beroa banatu zituzten Otsourtian lehenengo, eta San Migelen ondoren. Dutxa beroa eta bazkariarekin amaitu zuten eguna mendizaleek. **Argazki gehiago: www.elgoiBAREN.net**



Euriari eta hotzari aurpegi ona jarri, eta giro onean osatu zuten ibilbidea mendizaleek.



Aitzol Arriola salda hartzen, Aiastia-San Migelgo frontoian.



Pedro (atzean) eta Iñigo Iparragirre aita-semeak, Kalamuara bidean.



Nor nekatu ote zen lehenago, txakurra ala jabea?.



Mendizaleak irribarretsu, helmuga atzean dutela.



Jose Ignacio Jauregi, makilak eskuan hartuta, Aiastiatik Kalamuara bidean.



Mendizaleak pozik Aiastia-San Migelgo hornidura postura iristen.



Koldo Soraluze elgoibartarra, debarrei bidea erakusten.



Lauan taldean joan ziren mendizaleak, baina aldatzak nor bere lekuan jarri zuen.




Sabin Txurruka, Valentin Txurruka, Jaime Martinez eta Xabier Etxeberria salda eta txorizoa banatzeko postuan.



Hirukotea ibilbidearen azkeneko zatian, Karakate atzean dutela.



Iñigo Agirre "Tafa" eta Ibon Saez de Viteri ahalegin betean, aldatz gora.



Iñigo Gurrutxaga eta Neida Muñoz, aterkipean.

200 ume baino gehiagok hartu zuten parte kurtso amaierako bertso jaialdian

Ahozkotasuna eta bertsozaintza sustatzea da helburua



Herriko Antzokian egin zuten Elgoibarko ikasleek ikasturte amaierako bertso jaialdia, martitzenean, eta 200 ume baino gehiagok jardun zuten bertsoan. Herri Eskolako, Institutuko eta Ikastolako umeak izan ziren protagonistak, eta ikasturtean zehar egingako lana jende aurrean erakusteko aukera izan zuten. Gipuzkoako Bertsozale Elkarteak bertsozaintza eta ahazkotasuna lantzeko egitasmoari amaiera eman zion jaialdiak.

Elgoibar Ikastolako ikasleak saritu dituzte Kosmodisea lehiaketan



Elgoibar Ikastolako bi talde saritu dituzte Kosmodisea lehiaketan. Lehen Hezkuntzako 5. mailako Bostakoak taldeak lehen saria eskuratu du bere mailan, eta 3. mailako Karakate taldea, berriz, bigarren geratu da. Aurtengo edizioan 41 ikastetxek, 80 irakaslek eta 1.424 ikaslek hartu dute parte. Elgoibarko zortzi taldek parte hartu dute, eta horietako bi saritu dituzte. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Berrikuntzarako eta Jakintzaren Gizarterako Departamentuaren ekimena da Kosmodisea, eta pertsona ekintzailea izateko baliok eta trebetasunak bultzatzen ditu, betiere talde-lanaz baliaturik eta Informazio eta Komunikazioaren Teknologia desberdinak erabilita.

Lanbide heziketa iraunkorra euskaraz sustatzeko kanpaina IMHn

Enpresek langileentzat antolatzen dituzten ikastaroak euskaraz emateko ekimena aurkeztu du IMHk aste honetan Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundia, Elgoibarko Udala eta Ahize-AEKren babesarekin. Lanbide Heziketa iraunkorrari dagokionean material teknikoa prestatu du IMHk, irakasleak euskaraz irakasteko trebatu dituzte azken urteotan. Aurrera begira beste ikastetxeekin konpartitu nahi dute egitasmoa. Ikastetxeekin sare bat sortzeaz gain, enprekin ere esku-hartze bateratua egin daitekeela uste dute.

Donostiako Koldo Mitxelena Kulturuneko Areto Nagusian izan zen aurkezpena, eta bertan, izan ziren Estibaliz Alkorta Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara Zuzendari Nagusia, Alfredo Etxeberria Elgoibarko alkatea, Mikel Urdangarin Ahize-AEK hizkuntza aholkularitzaren teknikaria, eta Joxean Egaña eta Edurne Bilbao, azken biak Makina Erremintaren Institutuko (IMH) zuzendari eta komunikazio ardura-dunak. Elgoibarren ere egin zuten aurkezpena, udaletxean.

Kale Kantarien entsegua datorren barixakuan

Maiatzaren 28an Elgoibarko Kale Kantariak entsegua egingo dute, Kultur Etxeko hitzaldi gelan, 19:00etan. Hurrengo egunean, azken zapatuko ferian, irtengo dira kaleak girotzera, 12:00etan. Herri-tar guztiak gonbidatuta daude Kale Kantariekin parte hartzera.

Ikasketa gela jarri dute Kultur Etxeko sotoan

Azterketa garaia iristear dagoela-eta, ikasketa gela jarri dute Elgoibarko Kultur Etxeko sotoan. Uztailaren 5era arte egongo da zabalik, asteleheneetik domekara, 9:00etatik 21:00etara.

Taupada antzerki taldeak 'Isladak' lana taularatuko du Debako Antzerki Astean

Gaur gauean eskainiko dute antzezlan, Debako frontoi berrian

Gaur hasiko da Debako Antzerki Astea, eta Taupada taldeak eskainiko du lehen antzezlan. *Isladak* lana taularatuko dute elgoibartarrek, 22:30etik aurrera Lojendioko frontoian. Edurne Lasa eta Jose Mari Larrañagaren zuzendaritzapean, hamar aktore izango dira taula gainean. Aktoreen bizipenetan oinarritutako lana da *Isladak*. Euren kezka, ilusioak eta asmoak jaso dituzte, eta egunerokotasunean ohikoak diren gaiak landu dituzte. Esketx laburretan irudikatuko dute obra, eta aktore bakoitzak hainbat pertsonaia antzeztuko ditu. Pertsonaien arteko elkarriketak antzeztuko dituzte batzuek, eta beste batzuek gorputz ekintza soilak egingo dituzte.

Umerezko antzezlan da, baina era berean, ikusleei pentsaraziko dizkien gaiak ere landuko dituzte.



'Gernika mihise ganean' dantza ikuskizuna taularatuko dute Herriko Antzokian, hilaren 28an



Aukeran dantza taldeak *Gernika mihise ganean* ikuskizuna taularatuko du Herriko Antzokian, datorren barixakuan. 1937ko gerra agertzen du obrak, lehen pertsonaia kontatua: hau da, bonbardaketa jasan zutenen hitzetan. Dantza tradizionala eta garaikidea batzen ditu, eta argiak eta koloreak erabiltzen ditu giro desberdinak sortzeko. Bonbardaketan hildakoak heriotzatik itzuliko dira gertatutakoa kontatzeko. Obra irudikatzen hamar dantzari arituko dira taula gainean. Dantzaldia 22:15ean hasiko da.

Plazatik Gaztetxera bertso saioa gaur gauean, Mendaroko gaztetxean

Plazatik Gaztetxera bertso txapelketako kanporaketa Mendaron jokatuko dute gaur gauean. Eneritz Artetxe, Olatz Ibarluzea, Julen Sololuze, Hodei Barroso, Peru Vidal eta Ekaitz Samaniego izango dira parte hartuko duten bertsolariak eta Alain Ulazia mendarorarrak jardungo du gai jartzaile. Saioa 22:30ean hasiko da.

Zaharberitutako altzarien erakusketa Kultur Etxean

Eskuz arte eskolako ikasleek zaharberitutako altzarien erakusketa inauguratuko dute gaur, Kultur Etxeko erakusketa gelan. Ikasturtean zehar egindako lanak jarriko dituzte ikusgai. Erakusketa 19:00etan zabalduko dute, eta maiatzaren 30era arte egongo da ikusgai. Asteleheneetik zapatara bisitatu ahal izango da, 19:00etatik 21:00etara.

Dani Arenas laugarren, Espainiako fitness eta kulturismo txapelketan

Guztira, 50 lagunek parte hartu zuten

Dani Arenasek Espainiako fitness eta kulturismo txapelketan hartu zuen parte, joan zen domekan, Valladoliden, eta laugarren postuan sailkatu zen. Txapelketa “oso gogorra” izan zela adierazi du kulturista elgoibartarrak, berari dagokiona baino maila handiagoan sartu zutelako. Daniren helburua “txapelketaz disfrutatzea” zen. Postura desberdinak erakutsiz, koreografia ona egin zuen, eta laugarren postua eman zioten. “Une batez podiumean ikusi nuen neure burua, beste parte hartzaileak hutsegite asko egin zituelako”.

Bi urte pasatu dira Danik azken txapelketan parte hartu zuenetik, eta “oso pozik” dago lorutako emaitzarekin. Elgoibartik eta Danik berak Bilbon daukan gimnasiotik jende asko joan zen Valladolidera laguna animatzera, eta Danik eskerrak eman dizkie guztiei. Asteburu honetan Espainiako Kopa jokatu du, Cadizen.



Alkorta taldeak partida garrantzitsua jokatu du bihar kiroldegian

Trapagaran taldearen kontra jokatu du bihar Sanloko Alkorta taldeak. Igoera faseko bigarren postuan daude elgoibartarrak, Bergarako taldearekin berdinduta, eta lehen sailkatuarengandik puntu batera. Hiru partida geratzen dira goera fasea amaitzeko. Partida 19:30ean hasiko da.

Urpekaritzara gerturatzeko saioa, maiatzaren 29an

Urpekaritzara gerturatzeko saioa antolatu du Elgoibarko Ur Bizi taldeak, maiatzaren 29rako. 9:30etik 11:30era egingo dute saio hori, eta 14 urtetik gorako edonork hartu dezake parte. Beharrezko material guztia elkartekoek jarriko dute. Saio horretan parte hartzearen ez da ezer ordaindu beharko, baina komeni da aurrez izena ematea. Interesatuak 607 530 461 telefonora deitu dezakete.

Elgoibarko haur eta gazte askok hartu zuten parte zapatuan tenis jaialdian



Zortzi urtetik gorako haur eta gazte asko gerturatu ziren joan zen zapatuan 40-15 tenis elkarteak antolatutako tenis jaialdira. Raketa hartu, eta tenisa eskaintzen dituen aukera diferenteak probatu zituzten kiroldegiko kantuan. Antolatzailerek jarri zuten material guztia, eta umeek primeran pasatu zuten. Amaieran, zozketak egin zituzten, eta opariak banatu zizkieten parte hartu zutenei. Umeen artean teniserako zaletasuna sustatzea da jaialdiaren helburua.

Haurrentzako igeriketa ikastaroak udan

2 urtetik 9 urtera arteko haurrentzako igeriketa ikastaroak antolatu ditu Kirol Patronatuak udarako. Ekainaren 28tik uztailaren 22ra bitartean eskainiko dituzte ikastaroak, eta astean bi saio egingo dituzte. Interesatuak Elgoibarko Olaizaga kiroldegian eskuratu dezakete informazio gehiago.

Maiatzaren 28an amaituko da Futbol 7 txapelketan izena emateko epea

Debarreneneko Futbol 7 txapelketan izena emateko epea maiatzaren 28an amaituko da. Elgoibarko eta Eibarko kirol patronatuek antolatzen dute txapelketa, eta partidak Elgoibarren eta Eibarren jokatu dira. Gehienez hogeitalek hartu ahal izango dute parte, eta taldeko 60 euro ordaindu beharko dira. Informazio gehiago, 943 744 415 telefonoan.

Bost elgoibartarrek hartu dute parte Zegama-Aizkorri mendi maratoian

Manolo Ramos izan da elgoibartarrik bizkorrena

Manolo Ramos, Jon Revert, Josu Mendikute, Asier Arrieta eta Ignacio Perez elgoibartarrek parte hartu zuten domekan Zegama-Aizkorri maratoian. Elurra, euria, haizea eta hotza izan zituzten arerio korrikalariak, 42,195 kilometroko ibilbidean. 409 lagunek hartu zuten parte guztira, eta Kilian Jornet kataluniarrak eta Nerea Amilibia aiarrak irabazi zuten. Elgoibartarren artean Manolo Ramos izan zen bizkorrena 5:12:00 denborarekin. Jon Revertrek 5:21:58an geratu zuen erlojua, eta Josu Mendikutek, 6:02:40an. Asier Arrietaren denbora 6:26:39koa izan zen, eta Ignacio Perezena, 7:22:02koa.



Haundik 0-1 emaitzari buelta eman beharko dio

Joan zen zapatuan jokatu zuen Haundik *play off*-etako lehen partida Mintxetan, eta 0-1 galdu zuen Luancoko Marinoren kontra. Emaitza horri buelta eman beharko diote bihar elgoibartarrek. Luancón (Asturias) jokatu dute itzulerako partida, 18:00etan. Haundik daukan guztia eman beharko du kanporaketari buelta eman eta Bigarren B Mailara igotzeko ametsak bizirik jarrai dezan. Luancoko Marino gaintitzen badute beste bi *play-off* gaintitu beharko dituzte elgoibartarrek.

CD Elgoibarrek, bestalde, Champions txapelketako finala ikusteko sarrerak zozketatu ditu, eta hauek izan dira sarituak: Juan Mari Eguren, Miguel Arriola eta Miguel Angel Mujika.

Emaitza onak lortu dituzte Mintxetako korrikalariak Gipuzkoako alebina eta infantilen txapelketan

Domekan jokatu zen Gipuzkoako alebina eta infantilen atletismo txapelketa, eta Elgoibarko korrikalariak emaitza onak lortu zituzten. Ikar Urkiri bigarren postuan sailkatu zen alebina 1.000 metroko proban, eta Lorea Santiagok hirugarren postua eskuratu zuen infantil mailako 3.000 metroko lasterketan. 4x60 metroko errelebotan, bestalde, hirugarren postuan sailkatu zen Maria Arrieta, Haizea Sanchez, Nagore Bergara eta Nerea Martinezek osatutako taldea.



EMAITZAK

FUTBOLA

Haundi 0 – Luanco 1 (3. maila)
Lagun Onak 4 – Elgoibar 0 (Erreg. pref.)
Mariño 2 – Elgoibar 3 (Jub.)
Sport Herrera 4 – Elgoibar 0 (Kad. A)
Bergara 1 – Elgoibar 4 (Kad. B)
Lagun Onak 1 – Elgoibar 2 (Inf.)
Elgoibar 1 – Lengokoak 6 (Txiki)
Elgoibar 8 – Urola 6 (Neskak)

ESKU PILOTA

Debarroko Txapelketa
Arrasate 22 – Lagunak 12 (Kad.) (joanekoa)
Lagunak 19 – Arrasate 22 (Jub.) (itzulekoa)
Oskarbi 22 – Lagunak 17 (Nag.) (joanekoa)
Lagunak 17 – Oskarbi 22 (Nag.) (itzulekoa)
Lagunak txapelketa
Leiaristi 18 – Arriola 14 (Inf.)
Casado 18 – Diez 16 (Aleb.)
Urzainki 18 – Etxeberria 14 (Aleb.)
Igartua 18 – Urko 17 (Inf.)

ARETO FUTBOLA

Goierrri 4 – Concepto Creatch 4

ESKUBALOIA

Pulpo 15 – Txarriduna Elg. 34 (Inf. mut)
Ikus Elg. 23 – Zarautz 21 (Inf. nesk.)
Aterpe Elg. 12 – Zarautz 24 (Inf. nesk.)
Ikus-Aterpe Elg. 18 – Leitzaran 25 (Inf. nesk.)
Lauko Elg. 21 – Egia 18 (Kad. nesk.)
Irun 17 – Pneumax Elg. 32 (Kad. mut.)
Beristain Elg. 22 – Arrate 30 (Jub. mut.)
IMH Elg. 19 – Urnieta 13 (Kad. nesk.)
Grupo Eibar Elg. 42 – Arrate 21 (Jub. nesk.)
Alkorta Elg. 29 – Corazonistas 26 (Sen. mut.)
Zarautz 32 – Tecnifuelle Elg. 22 (Sen. nesk.)

AGENDA

ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Domeka, 23

11:30 Concepto Creatch – Ituriondo

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 22

13:00 Elgoibar – Oiartzun (Kad. A)

Domeka, 23

11:15 Elgoibar – Ordizia (Ohorezko inf.)

16:00 Elgoibar – Kostkas (Ohorezko jub.)

ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 22

17:30 Pneumax Elg. – Urola (Kad. mut.)

19:30 Alkorta Elg. – Trapagaran (Sen. mut.)

IDARRAGA SARIAK

1. Guinea 97 puntu
2. Larrea 80 puntu
3. Gabilondo 64 puntu
4. Iker 62 puntu

LANA

ESKAERA

- Neska gaztea, umeak edo nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **657 142 376**
- Emakumea nagusiak edo haurrak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Portalak edo tabernak ere bai. ☎ **663 786 976**
- Ordenagailuak konpontzen dira. Merke. Etxez etxeko zerbitzua. ☎ **646 743 828**
- Emakumea nagusiak edo haurrak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka. ☎ **648 603 029**
- Neska umeak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **666 008 974**
- Neska nagusiak edo gaixoak zaintzeko prest. Gauez. ☎ **646 821 678**
- Mutila baserrian edo tabernan lan egiteko prest. ☎ **686 077 316**
- Mutila lanerako prest. Igeltsero, sukaldari laguntzaile, nagusi zaintzaile... ☎ **688 647 664**
- Neska nagusiak zeintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Edozein ordutan. ☎ **638 344 377 / 943 530 795**
- Mutila lanerako prest. Igeltsero, sukaldari laguntzaile, nagusi zaintzaile... ☎ **638 344 377**

- Emakumea garbiketa lanak egiteko edo nagusiak zaintzeko prest. Orduka. ☎ **648 603 029**
- Emakumea garbiketa lanak egiteko edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **661 055 055**
- Emakumea garbiketa lanak egiteko edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **636 956 366**

ESKAINNTZA

- Kamareroa behar da. ☎ **634 799 201**

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUA ETA SALMENTA

- Etxea salgai Caparrosen. Hiru solairukoa. 150.000 euro. Negoziatzeko prest. ☎ **652 768 970**
- Etxea salgai Ubitarten. Bi logela, sukalde-jangela, komuna eta ganbara. Dena berrituta. 180.000 euro. ☎ **629 402 313**
- Etxea alokatzen dut Mintxetan. ☎ **669 627 655**
- Etxea alokatzen da Santa Ana kalean. Hiru logela. 525 euro, gastuak barne. ☎ **629 314 242**
- Pisua salgai, Basarten. 77m2. Eguzkitsua, eta egoe-ronean. Garajearekin. Aukera ona. ☎ **647 372 033**

- Etxea salgai Elgoibarko erdigunean. Eguzkitsua, eta logela guztiak kanpoaldera begira. Bi logela eta egongela. Berritua. 133.000 euro. ☎ **620 748 635**
- Etxea salgai. Eguzkitsua eta balkoiarekin. Berritua. Sukalde handia, bi logela eta egongela. Prezio onean. ☎ **699 209 844**

GARAJEAK

- Marradun garajea alokatzen dut Leku Ederren, 4. solairuan. 55 euro hilean. ☎ **660 042 159**
- Garaje itxia alokatzen da Jausoro Plazan. Udaletxetik gertu. ☎ **628 764 686**

LOKALAK

- 125 metro koadroko lokala alokatzen dut, erosteko aukerarekin. Lehen taberna zen eta elkarte bat egiteko edo biltegi moduan erabiltzeko egokia izan daiteke. ☎ **649 446 716 (19:00etatik 22:00etara)**

BESTELAKOAK

- PHmetroa galdu nuen, Ikastola inguruan. Uraren konduktibitatea neurtzeko aparatua da. Urdina da, eta hiru kable ditu. Ordaintzeko prest nago ☎ **696 856 485**

OHARRA:

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak hiru astetan agertuko dira **BARREN**en eta astero *barren.iragarkilaburak.com* atarian. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta **15 euro** eta alokairua **10 euro**. Autoak **10 euro**. Eta bestelakoak **5 euro**. Eguazten eguerdia baino lehen. Tel.: 943 743 704

MODULOAK

Lana / Bestelakoak
Astebete : 5 euro
2 aste : 8 euro
3 aste : 10 euro

Etxebizitzak/ Garajeak/ Motorra
Astebete : 10 euro
2 aste : 17 euro
3 aste : 25 euro

Jarri ezazu zure publizitatea

B
BARREN
astekarian
943 743 704





• Zorionak, **Pakita**, domekan 82 urte egingo dituzulako. Lagun denon partez, Ondo pasa!



• Aupa, **Unai**, dagoeneko 12 urte egin dituzu! Segi beti bezain jator eta alai. Zorionak maite zaitugun guztion partez.



• Zorionak gure **Martinxori**, astelehenean 8 urte egingo dituelako. Aita, ama eta Naroaren partez, ondo pasa!



• Zorionak, **Oier!** Ederki itzali zenituen bederatzi kandelak igandean! Muxuak etxekoan partez.



• Zorionak, **Sarel** Kostatu zaio heltzea, baina azkenean 4 urte! Ondo pasa igandean, eta patxo handi bat denon partez.




• Zorionak, **June**, ostiralean 7 urte egin zenituelako. Etxekoan, eta bereziki, gurasoan eta ahizparen partez.



• Zorionak, bihar 3 urte egingo dituzulako. Guraso, aiton-amona, osaba-izeba eta lagunaren partez.



• Zorionak, **Ane**, maiatzaren 18an urte bat egin zenuelako. Familiakoan partez, muxu bat.



• Zorionak, **Asier**, maiatzaren 17an urte bat egin zenuelako. Aitaxo eta amatxoren partez.




• Zorionak, **Lander**, gaur 7 urte egin dituzulako. Oso ondo pasa! Ibonen eta gurasoaren partez.



• Zorionak, **Elsa**, 11 urte egingo dituzulako. Ondo pasa, domekan! Familiakoan partez.



• Zorionak, **Alain**, 2 urte egin dituzulako. Muxu bat familiakoan partez.



• Zorionak, **Julen**, igandean 3 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat familiakoan partez.



• Zorionak, **Leire**, zure 3. urtebetetzean. Muxu handi bat familiako guztien partez. Bereziki, Joao eta Nerearen partez.



• Zorionak, **Ane**, zure 3. urtebetetzean. Patxo asko familiako guztien partez.



• Zorionak, **Intza**, 4 urte egin zenituelako maiatzaren 18an. Laguntxoan, etxekoan, eta bereziki, anaia Arkaitzen partez.



• Zorionak, **Malen**, zure 5. urtebetetzean. Muxu potolo bat etxekoan eta bereziki, Maddiren partez.



• Zorionak, **Marcos**, atzo 10 urte egin zenituelako. Asier, Iria eta familiako guztien partez. Muxu bat.



• Zorionak, **Nere**, 19an urteak egin zenituelako. Asko maite zaitugu.




• Zorionak, **Ibai**, zure lehenengo urtebetetzean. Familiakoan, eta bereziki, Noraren partez.



• Zorionak, **Luis eta Rosana**, maiatzaren 28an Elgoibar-ko epaitegian ezkonduko zaretelako.



• Zorionak zuen ezkontzagatik, eta ondo pasa Australian!



• Zorionak, **bikotelli!** Oso ondo pasa zuen ezkontza egunean. Familiakoan eta koadrilakoan partez



• Zorionak, **Nahia**, 4 urte egingo dituzulako maiatzaren 25ean. Familiakoan, eta bereziki, Iratiren partez.



• 3 eta 6 urte! Ondo pasatu zenuten zuen egunean, **Polixis?** Muxu handi bat aitaxo eta amatxoren partez.

OKINDEGIA

23 domeka **IBARRENEA**

FARMAZIAK

24 ORDUZ

- 21 Etxeberria (*Errosario*)
- 22 Ibañez
- Goizez, Yudego
- 23 Ibañez
- 24 Garitaonandia-Bidasolo
- 25 Etxeberria (*Santa Ana*)
- 26 Fernandez
- 27 Yudego
- 28 Zabaleta

Ibañez

Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 751 638

Fernandez

Herriko enparantza 4,
Garagartza (MENDARO)
Tel: 943 756 142

Zabaleta

Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 751 384

INFORMAZIO GEHIAGO:



Egin klik

www.elgoiBARREN.net



«El escritor»

21, barixakua: 22:15
22, zapatua: 19:00/22:15
23, domeka: 19:00
24, astelehena: 21:30

21 barixakua

Aisialdia

17:30 Kiribilka egitasmoa
Elgoibarko Izarrak antolatuta,
2tik 6 urtera arteko umeentzako
eta haien gurasoentzako
egitasmoa. Plaza Handian.

Jaialdia

18:30 Ikastolako ikasleen
jaialdia

Elgoibar Ikastolako Haur
Hezkuntzako umeek ikasturte
amaierako jaialdia egingo dute.
Ikastolako frontoian.

Aurkezpena

19:00 HARRO2
Elgoibarko gazteen eta gazte
eragileen taldea aurkeztuko dute
Plaza Handian. Ondoren
txaranga-poteoa egingo dute.
Iluntzean, Madalako parkean

afaria egingo dute, eta gauerako
karaoke saioa antolatu dute.

Erakusketa

19:00 Zaharberitutako
altzarien erakusketa
Eskuz arte eskolako ikasleek
zaharberitutako altzarien
erakusketa egingo dute Kultur
Etxean. Maiatzaren 30era arte
egongo da ikusgai. Ordutegia:
astelehenetik zapatua,
19:00etatik 21:00etara.

23 domeka

Txapelketa

9:00 Ehiza txakurren lehiaketa
La Union elkarteak antolatuta,
Larraskandan.

Kirola

16:00 Txirindulari lasterketa
Elgoibarko Lagun Taldea saria,

kadete mailakoentzat. Irteera,
Plaza Handian eta helmuga,
Santa Klaran.

24 astelehena

Tailerra

17:00 Arte tailerra
Haizea emakume taldeak anto-
latuta, Picassoren *Gernika* koa-
droa aztertuko dute. Kultur
Etxeo hitzaldi gelan.

Musika

19:30 Kurtso amaierako
jaialdia
Inazio Bereziartua musika eta
dantza eskolako ikasleek jaialdia
egingo dute, musika eskolako
auditorioan.

LUDOTEKAKO EKINTZAK



BARIXAKUA 21

Txupinazo eguna: buruhandiak eta
futbolin txapelketa 17:00

ZAPATUA 22

Aralarrera irteera 9:30

ASTELEHENA 24

Euskararen Eguna: Herri kirolak 17:00

MARTITZENA 25

Txiki eguna: txokolate jana eta jolasak 17:00

EGUAZTENA 26

Gazte eguna: buruhandiak eta merendola
17:30

EGUENA 27

Eskulanak 17:30

GAZTELEKUKO EKINTZAK



BARIXAKUA 21

Kanpo jolasak 17:00

ZAPATUA 22

Topagunea 17:00

DOMEKA 23

Zinea: *Barrio* 17:00

MARTITZENA 25

Eskulanak 17:00

EGUAZTENA 26

Txoko pribatua 17:00

EGUENA 27

Sukalde txokoa, itallar izozkia 17:00

Frantzia, 2008. Zuz.: Roman Polanski.
Akt.: Ewan McGregor, Pierce Brosnan,
Kim Cattrall. 128 min.

Idazle bat kontratatuko dute, Erresuma
Batuko lehen ministro ohiaren autobio-

grafia idatz dezan. Lana hasi zuen lehen
idazlea, ordea, hil egin zuten. Idazleak
politikariaren inguruko informazio bat
aurkituko du. Ongi ordainduriko lana da,
baina ikerketa arriskutsua izango da.

Erretratu zaharra



1967

Aste honetako erretratu zaharra Arrate Iriondok lagatakoa da. 1967 urtean Mendaroko mojen eskolan ikasten zuten neskak azaltzen dira argazkian. Orain dela urte batzuk bota zuten mojen eskola, eta gaur egun, San Agustin kultur gunea dago eskolaren lekuan. Gogora ditzagun erretratuan azaltzen diren nesken izenak:

Goiko ilaran, ezkerretik hasita: Leonisa Barroso, Inmaculada Urruzola, Mertxe Olazabal, Nieves Aranberri, Marta Elena Suarez, Arantxa Marin, Ana Isabel Loiola, Mertxe Huizi, Manola Paredes, Arantxa Goikoetxea eta Maria Asun. **Bigarren ilaran:** Rosa Mari Salegi, Nekane Larrañaga, Juli Godoy, Kontxi Arrieta, Encarnita Dominguez, Maite Vecina, Pili Garazo, Arrate Loiola, Marijo San Martin, Belen Suarez (†), Encarnita Esteban eta Deñe Galdos. **Eserita:** Edurne Arrieta, Maria Asun Albizu, Maria Asun Loiola, Marijo Vecina, Marijo Aranberri (†), Miren Alberdi, Arrate Iriondo, Laura Salegi, Nemesia Vidal, Juanita Salegi (†), Eva Olazabal eta Amaia Etxeberria. **Behean, belauriko:** Ana Maria Itoiz, Amaia Zubiaurre, Esther Ollora, Marisa Torronteras, Gemma Arrillaga, Marije Urbietta, Mari Tere Inda, Juana Mari Marin, Presen Rubio eta Mari Guerola.

PINTURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN
Xibilan, 2 - 3.sotua 943 74 35 52 - 74 27 88
KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

BUKATU
ECANIZADOS
S.COOP
BUKATU.
OLASO Poligono Industrial - Olaso kale, 6
66 area - Telefonua: 943 74 42 54 - Fax: 943 74 02 98
20870 ELGOIBAR
E-posta: bukatu@bukatu.es - Http: www.bukatu.es

M4A

Emakume,
gizon eta
haur erropak

Eskaintza bereziak

Julio Urkijo, 24 · AZKOITIA · Tel.: 943 85 07 36

ZEZEN-BIDE

AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!
Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!

ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era
 15:00etatik-20:30era

LEKUALDAKETA
 San Frantzisko, 52 behea
 Tel. 943 742 720
 20870 ELGOIBAR

- Euskarazko eta gaztelarazko klaseak
- Credikutxarekin ordaintzeko erraztasunak

Trinitateak

Maiatzaren 28tik 30era

Ondo pasa jaiak! Zorionak elgoibartar guztioi Udalaren izenean



AUKERAN DANTZA TALDEA

Gernika, mihise gaineko dantza

MAIATZAK 28

22:15ean

HERRIKO ANTZOKIAN



Gernika
mihise gaineko dantza dantza sobre
tenzo danse sur toile dance on canvas



Elgoibarko Udala
Kultura saila

elgoibar
bizi-biziXal



IKUSKIZUN ESZENIKOAK

Sarrera Salmenta



CAJEROS SERVIKUTXA

943 00 12 00

www.kutxa.net